

4. DIRU ITURRIAK

Proiektua monetizatzeko publizitatea eta komisioak erabiliko ditugu, web orria nitxoakoa izango da (guk hiperestekak jarriko ditugu produktuetara, hortaz bezeroak "bidaltzeagatik" dirua kobratuko dugu). Programarik onena bilatuko dugu:

- **Publizitatea:** Web orrialdean google ad sense-k emandako iragarkiak ipiniko dira, horrela, bilatzailean eta hasierako orrian (lekurik ohikoenak edo bisitatuenak direnak) agertuko dira, erabiltzaile gehiagok ikus dezaten.
- **Komisioak eta afiliatuen programak:** Gure orrialdean denda onlinetara doazen estekak jarriko ditugu, Amazon edo PCCOM bezala. Erabiltzaileak produktuak konparatu ostean (Prezio onenetik garestienara ordenaturik), informazioa baliagarria izan bada eta bilatutakoa erosi behar badu, guk komisioa adostutako enpresekin estekak jarriko ditugu, produkuta saltzen duten dendetara. Komisioa %X izango da. Afiliatuen programa bat erabiliko dugu, Clickbank, Amazon, PCCom web orriek eskeintzen dutenak bezalakoak.